

## 7. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Hauek dira gure enpresak erabiliko dituen funtsezko baliabideak:

- **Baliabide fisikoak:** Gure proiektua aurrera eramateko lokala, ordenagailua, eskaerak online bidez egiten dituztenentzako eskariak jasotzeko; telefonoa, bezeroei arreta emateko; gure diseinuak egiteko materiala...
- **Baliabide intelektualak eta giza baliabideak:** Gure proiektua aurrera eramateko sare sozialak erabiliko ditugu gure diseinuak jendearekin partekatu ahal izateko eta hortaz gain, jendeari online bidezko erostetak egiteko aukera emango diogu.

Irati eta Iraiaren sormena, Junek dauzkan informatikako eta webguneak diseinatzeko ezagutzak eta Udanez dauzkan josteko gaitasunekin eramango dugu aurrera gure proiektua.

- **Finantza baliabideak:** Gure proiektua hasteko, lehenik eta behin gure aurrezkietatik aterako dugu dirua. Ondoren, udan aurrera eramango ditugun tallerretatik ere diru pixkat aterako dugu, proiektuan lagundu ahal izateko. Baita ere, behar izanez gero, kredituren bat eskatu ahal diogu bankuari, diru arazorik ez izateko.

